

auzo • auzo • auzo • auzo • auzo • auzo

altza

«Jendea auzoko informazioaren egarri da»

Altzako Historia Mintegiak kaleratu berri du Hautsa Kenduz liburuaren hirugarren alea. Mintegiak lanean daramazkin hamar urteak eta lortutako emaitzak ondo laburtu dituzte liburuan, era berean, herria izan zen auzo honen berezitasunak azalduz. Iñigo Landarekin egon gara liburuaren nondik norakoak azaltzeko.

Zer aurki daiteke 160 orrialde eta 17 artikuluetan dituen liburu honetan?

Denetik, egia esan saiatu gara gai astun eta zientifikoen gain gertutasuna duten gaiak ere kaleratzen baina beti honelako liburu batek eskatzen duen seriotasuna ahaztu gabe.

Nolako harrera izan du liburuak?

Harrera ona izan du lehen egunetik, aurkezpen egunean bertan 100 lagun pasatxo bildu ginen. Jendea auzoko informazioaren egarri agertu da.

Salmentari dagokionez, eta kontutan izanik banaketa enpresarik ez dugula, poliki-poliki baina badoa.

Liburua, Casares Kul-



Iñigo Landa Altzako Historia Mintegiko kideak XIV eta XV mendeetako Altza aztertu du «Altza Hautsa kenduz» liburuaren hirugarren alean Juan Carlos Etxebesterekin batera.

tur Etxean eta Donostiako liburutegia garrantzitsuenetan 600 pezetan dago salgai.

Historia Mintegiak Estibaus izeneko aldizkari txiki bat ere aurkeztu du.

Erdi aroan Estibaus izeneko zelaian biltzen ziren altzatarrek administrazio lanak egiteko. Kontseilu irekia zen eta bertan parte hartzea ere irekia zen. Estibaus zelaian zegoen izpiritu kolektibo

hori berreskuratu nahian sortu dugu Historia Mintegiaren inguruko gaiak aztertuko dituen hiruhilabetekaria.

Zeintzu dira Historia Mintegiak etorkizunera begira landuko dituen gaiak?

Asko dira etorkizuneko arazoak, batez ere, kontutan izanik mintegia osatzen dugun lagun kopurua handitzen doala egunez egun.

Martxoaren 1ean Casa-

res Kultur Etxearen eskutik Toki Bildumaren Katalogari irekiko dizkiogu ateak. Altza Hautsa Kenduz liburuaren laugarren alea ere prestatzen hasi gara.

Eguneko irteerak ere prestatu ditugu: larunbatean, hilak 17, Astigarraga-Altza arteko mugarriak errepasatuko ditugu.

Hemeroteka, Altzako historiaren Ikertzaile Gida, Agiri eta Dokumentu Zaharren Bilketa eta abar planifikatu ditugu etorkizunerako.

Historia aztertzeke beka bat ere sortu duzue.

Bai, 125.000 pezetako dirulaguntza bat da. Beka honetan edozeinek parte har dezake eta oinarriak Kutxaren sukurtsaletan edo Casares Kultur Etxean aurki daitezke.

Mintegiaren orain arteko 10 urtetan zer auzoaz ari zaren?

Azpimarra daiteke Kultur Etxearekin izandako harreman emankorra, beharrezko lan bitartekoak eskura jarri baitizkiagu. Behar bada gauza gehiago egin zitezkeen baina egindakoa hor dago eta altzatarrentzat probetxugarria izan dela uste dugu.


LARRAITZ GARMENDIA (IFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: IMANOL OTEGI

herrera

Lapurreta berezi baten lekuko izan da San Luis enparantza. Duela egun batzuk, Mendi-Zaleak elkarteak bertan jarria daukan rokodromoaren piezak eraman zituzten. Itxuraz, gertaera goizeko ordubiak inguruan izan zen. 3 mutil eta bi neska sokaz prestatu Herre-rako enparantzara iritsi ondoren, rokodromoak bertan eskalatzen ibiltzeko dituen pieza eta tresna guztiak kendu eta eraman egin zituzten.

Orain hain erabilia izan den rokodromo gabe geratu gara eta auzoko eskalada zaleak bertan behera utzi behar izan dute hain gustoko zuten



Argazkia: Imanol Otegi

Haurrek aukeratuta ko jokuak Herrerako San Luis enparantzan, gure auzoko bilgune aproposenean, ume jokoak aldatu egin dituzte eta behar bezalako zolua jarri dute. Historia honen gauzarik politena da Auzotegiko eta auzoko haurrek erabaki dutela zein joku, non eta nola jarri.

kirola. Gertatutakoak erakutsi digu oraindik ere badaudela lapur profesionalak eta guztiok ere begiak ondo ireki behar ditugula honen aurrean.

Sporting Futbol Elkar-teak, pasa den astean, orain arte erabiltzen zuten arropak aldatu ditu. Hain zuzen Gros auzoko Gorrigas etxearekin si-

natutako akordio bati esker 95/96 denboraldian kirol jantzi berriak izango dituzte.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Foto Sai

Foto Sai

Igentea 7 • Tfnoa.: 43 03 41

Urbietea 7 • Tfnoa.: 42 87 68 • Faxe: 42 10 38